



AISIALDI-KIROL MAHAIA / MESA DE OCIO DEPORTIVO

2022ko uztailak 21

GAI-ZERREDA:

1. Ongi etorria.
2. Sektorearen egungo egoeraren azterketa
3. Gai-zerrendarekin batera bidalitako dokumentuaren balorazioa
4. Informazioa hurrengo gaiei buruz:
 - a) Kirol Portuko aurrerapenak
 - b) Kirol arloko lanbideen legea + Turismo aktiboa arautzeko dekretu berria
 - c) Getxo Bono 2023 proposamenak
 - d) Getxo Aktibatu 2023
 - e) Kontratazorako laguntzak.
5. Ideia eta proposamen berriak: taldeko eztabaida.
6. Galderak, iradokizunak eta bestelakoak.
7. Hurrengo urratsak.

BERTARATUAK:

DEITUTAKOAK		BERTARATUA K	BERTARATU GABEAK	
			Arrazoa emanda	Arrazoa eman gabe
Sektoreko ordezkaria eta Polaris Nautika Eskolako kudeatzailea	Héctor García		X	
2 Millas	David Benavente			X
Galea nautika	Javier Gutiérrez		X	
Marmitako Sailing	Eduardo Arostegui		X	
Sailing & Wine	Natxo Taibo			X
Ballestrinque nautika	Alejandro Bracho			X
Arriluze nautika	Roberto Santos			X
As de Guía nautika	Javier Peña			X
Sotavento nautika eskola	Alfonso Hernández			X
Jose Luis de Ugarte Bela Eskola	Eduardo Santamarina			X
Pakea Bela Eskola	Gonzalo Terceño			X



El Bote Tours	Juan Olabarria			X
Getxo Watersports Jet	Iñigo Martínez		X	
Planeta Jets	Olga Zabala		X	
Getxoport	Jose Miguel Larrinaga		X	
La Mar de Bien	Jose Muro			X
Acero Surf Eskola	Eneko Acero			X
La Salbaje Surf Eskola	César Maceda		X	
Barrika Surf Kanp	Nagore Nicolas		X	
La Kantera Skate Eskola	Borja			X
Arrecife	Jose Manuel Rodriguez			X
Dive Tarpoon	Julen Ibinaga	X		
Loizaga Prest	Imanol Loizaga			X
Geotxiki	Aintzane Goffard	X		
Ekobideak	Imanol López (Bárbara Casasek lagunduta)	X		
Euskadi Trek	Marisa Lago		X	
Fangaloka Style	Sergio Vadillo Gil			X
Iparapente	Aritza Iurrizaga (Paola etorri da ordezkari)	X		
Parapente Bizkaia	Wiso		X	
Deskonecta	Begoña Oca		X	
Hegohaize Foil				X
Getxo Water Bikers	Nagore	X		
Getxoko Udala - Ekonomia Sustapeneko Arloa	Jose Rica	X		
	Sonia Urdiain	X		

EDUKIAK:

1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Bilerara bertaratutakoak agurtu eta aurkeztu dira. Talde teknikoak barkamena eskatu du bilera egiteko datagatik, sektoreko lan-bolumen handieneko garaiarekin bat datorrelako. Izan ere, beharrezkoa da garai horretan biltzea, Enpresen Aholku Foroaren lan-kronogramari dagokionez, irailaren amaierarako proposamen zehatz eta lehenetsiak bilduta edukitzea aurreikusten delako, ondoren, horiek 2023ko aurrekontu-proposamenean sartzea baloratu ahal izateko.

Jarraian, esku-hartzeak egin dira, uda nola hasi den eta sektorean zer aurreikuspen dauden ezagutzeko, jardueraren urtarokotasuna dela eta. Ildo horretatik, bileran batutakoek honako hau adierazi dute:

Julenek (Tarpoon) esan du eskari handia izaten ari direla; azpimarratu du eskari horren ehuneko batek eskatzen duela urpekaritza-jarduera informazio gutxirekin egitea, jarduera hori edo beste batzuk egiteko interes berarekin eta alde aurreko



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

prestakuntzarik gabe. Gure itsas ingurunearen baldintzak eta kalitatezko esperientzia gogoangarria eta segurua eskaintzeko beharra kontuan hartuta, esperientzia horiek Getxon egin daitezkeen beste jarduera batzuetara bideratzen dituzte. Planak euskarria erabiltzen dute horretarako.

Paolak (iParapente) ere horixe uste du, hots, bisitariak parapentearen esperientziari buruz informazio urria dutela dio. Denboraldi honetan sartu da enpresan, eta erreserben kudeaketaz, administrazio-gaiez eta sustapen- eta posizionamendukanpainaz arduratuko da nagusiki. Aholkularitza espezializatua eskaintzen zaio azken lan-lerro horretan laguntzeko.

Adierazi du administrazioek esku hartu behar dutela zerbitzua emateko baldintzak arautze aldera. Jakinarazi zaio Sopelako eta Getxoko udalek sinatutako hitzarmenaren babesean, txosten juridiko bat kontratatu dela, toki-administrazioak eremu horretan duen eskumena argitzen laguntzeko, bai eta ibilbide-orri baten proposamena ere, jarduera arautzeko aukera emango diguna, bere garaian surfaren esparruan egin zenaren antzeko baldintzetan.

Nagorek (Water Bikers) dio pozik dagoela bere jardueraren eskariarekin, nahiz eta irregularra den.

Aintzane (Geotxiki) esan du udaberrian oso ondo lan egin duela talde eta elkarteekin; talde eta elkarte horien eskariak behera egiten du udan, eta norbanakoen eskaria nahiko ahula eta irregularra izaten ari da.

Ikuspegi teknikitik, eta turismo-bulegotik lortutako datuak kontuan hartuta, ondorioztatu da turismo-sektorerako aurreikuspen handiak egon arren, udako eskaria modu irregularrean hasi dela. Estatutik datozen bisitariak ez dira eskolako oporrak hartu arte iritsi, eta atzerriko bisitariak aurrea hartu diete horiei –iragarpen guztietatik kanpo–; hala ere, 2019an baino kopuru txikiagoak izaten jarraitzen dugu.

2. Gai-zerrendarekin batera bidalitako dokumentuaren balorazioa

Hainbat alderdi politikok eta ordezkari sektorialek egindako iradokizunen ondoren, hartutako metodologia berria azaldu du Sonia Urdiainek, hots, egindako proiektuen aurrerapena eta prozesua adierazten duen laburpen-fitxa bilera baino lehen bidaltzekoa.

Ez da horri buruzko ekarpenik egin.

3. Informazioa hurrengo gaiei buruz:

3.1. Kirol Portuko aurrerapenak.

Álvaro Cerezok, El Abra-Getxo Kirol Portua Sozietateko zuzendariak, saioan parte hartu du, Kirol Portuaren inguruan izan diren aurrerapenak enprekin partekatzeko.

Jakinarazi du lehiaketa berria lizitazio-fasean dagoela, eta horren bidez kirol-portua berritu eta ustiatuko dela 15 urterako, 2025eko urtarrilaren 3tik aurrera.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

Lehiaketa arautzen duten oinarriek esku-hartzeen gutxieneko agertoki bat ezartzen dute, baina behin betiko proiektua enpresa lizitatzailerak aurkezten dituzten proposamenen arabera izango da.

Hala, 3 eremu aurreikusten dira:

1.- Pantalanen eremua; guztiz berritzea aurreikusten da.

- ✓ Pantalan osagarria 1 (besteak beste El Bote Tours enpresak erabiltzen duena) ustiapeneko izango da. Uretako motoak bertan kokatzea aurreikusten da, Abrara irteera zuzenagoa izateko, portuko barruko nabigazio-kanaletik kanpo, eta gatazkak saihesteko.
- ✓ Pantalan osagarria 2 (Tarpoon ondoan); udalarena izango da, eta, beraz, ustiatetik kanpo geratuko da. GK-ko itsasontziak hartzeko, klubak erabilerarako, enpresa-testak egiteko, etab.
- ✓ Kapitaintzaren inguruko pantalanak; joan-etorrietarako eta enpresetarako izango dira.

2.- Ostalaritza eremua; esku-hartze orokorra aurreikusten da.

3.- Eremu teknikoa;

3.1. Sarrera bikoitza duten 10 lokal (kanpoaldea + zurezko ontziralekua), ontzien mantentze-zerbitzuak eta/edo antzeko zerbitzuak ematen dituzten enpresentzat.

3.2. Errepidearekiko paraleloak diren lokalak (garai bateko akuarioa, etab.); merkataritza-erabilera aurreikusten da.

Guzti horien kasuan, ustiapena hileko alokairu gisakoa izatea aurreikusten da, eta ez hainbat urtetarako emakida (egungo eredu). Hileko alokairuaren prezioak kobratzen diren kontzeptu guztien banakapen xehatua izango du.

Esku hartzetik eta ustiapenetik kanpo geratzen dira bela eskola, arraun eskola eta Getxo Itsas Hub hartzen dituzten lokalak.

Proposamenak aurkezteko epea 2022-10-17an amaituko da, eta 2023ko lehen hiruhilekoan adjudikatuta izatea espero da. Gaur egun, hainbat enpresak erakutsi dute interesa.

Lehiaketaren oinarriek aukera ematen dute adjudikaziodunak 2 urtera arteko bizikidetzak izateko; hau da, kirol-portuaren ustiapenaz arduratu ahal izango da 2023tik 2025era bitartean, adjudikatzen den egunetik 2025-01-03ra bitartean, kontratuaren egungo baldintzei eutsiz.

Bestalde, lehiaketatik alde batera utzita, enpresek helarazi dute portua zikina dagoela; askotan, bisitatzen duten pertsonen jokabide ez oso gizona direla eta. Zaintza zorrotzagoa egitea komeniko litzateke.

Álvarok esan du Getxo Kaia kontratuaren baldintzak betetzen ari dela.

Halaber, adierazi du alderdi batzuk hobetu daitezkeela barne-erabilerari buruzko araudia berrikusi eta aldatuta. Aldatzeko asmoa dago, baina ez da lan erraza.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

3.2. Kirol arloko lanbideen legea + Turismo aktiboa arautzeko dekretu berria

Kirol arloko lanbideen lege onartu berriaren berri eman da. Lege horrek, besteak beste, lanbideek –begiraleak, besteak beste– zerbitzua eman ahal izateko izan behar dituzten titulazioak arautzen ditu, sektorean ordena eta arauketa ezartzeko aukera gisa.

Ilido beretik, jakinarazi denez, AKTIBAK behin eta berriz eskatuta, Eusko Jaurlaritzak turismo aktiboari buruzko dekretu arautzaile berri bat izapidetzeko konpromisoa hartu du. Aurreikuspenen arabera, 2023an zehar onartuko da.

3.3. Getxo Bono 2023 proposamenak

2022ko kanpainari dagokionez, jakinarazi da turismo aktiboko 6 enpresa baino ez direla atxiki ekimenera, eta 130 bonu inguru izapidetu direla.

Zerbitzu mota hori sektorearekin ondo egokitzen den galdetu da –enpresa mota horien atxikimendu eskasa dela eta–, eta enpresek Getxo Bono 2023rako hobekuntza-proposamenak eta iradokizunak aurkezteko aukera eskaini da, irailaren 8ra arte.

3.4. Getxo Aktibatu 2023

GetxoAktibaTU! programa zertan datzan eta pandemian online formatura nola bideratu zen gogoratu da. Hala ere, gaur egun, aurrez aurreko jardueri ekin zaie berriro. Gainera, enpresak parte hartzera animatu dira, programarako jarduerak antolatuz:

[Getxo - Ekonomia Sustapena - Programak - GetxoAktibaTU](#)

3.5. Kontratatorako laguntzak.

Jakinarazi da aurtengo urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean langileak kontratatu dituzten establezimendu guztiek aukera izango dutela, gainerako baldintzak betetzen badituzte, laster argitaratuko diren kontratatorako laguntzak eskatzeko.

[Getxo - Ekonomia Sustapena - Dirulaguntzak - Hurrengo dirulaguntzak kontratatorako 2022](#)

4. Ideia eta proposamen berriak: taldeko eztabaida.

Gaia aztertzeke astirik ez dagoenez, irailaren 8ra arteko epea ematen zaie enpresei proposamenak helarazteko, sektorearen egoera hobetu eta/edo sektorearen posizionamendu hobea lortzen lagundu dezaketenak, horiek 2023an gauza daitezten. Ordezkaritari bidaltzeko eskatu zaie, helbide honetara: ociodeportivo@getxo.eus

5. Hurrengo urratsak:

- Enpresen Kontsulta Foroa deitzea irailaren 13an (14:30). Bertan, sektoreko ordezkariek mahai sektorialetan jasotzen diren proposamenak lehenetsiko dituzte.

AISIALDI-KIROL MAHAIAREN ERABAKIAK (2022-07-21):



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
2. Getxo Bono 2023ren inguruko proposamenak eta iradokizunak bidaltzea	Turismo sektoreko enpresak	Irailaren 8ra arte
3. Sektorearen egoera edo/eta kokapena hobetu dezaketen proposamenak igortzea 2023an egikaritzeko	Turismo sektoreko enpresak	Irailaren 8ra arte